



I. ERANSKINA

ESTATUAN ETA HIRUGARREN HERRIALDEETAN ARABAKO ERRIOXA SUSTATZEKO ETA MERKATURATZEKO EKINTZETAN PARTE HARTZEKO INTERESA DAGOELA ADIERAZTEKO DEIALDIAREN JARRAIBIDEAK.

1.- Parte hartzaileak

- 1.1. Onetsitako inprimakia bete behar dute Arabako Lurralde Historikoko nekazaritza ustategien titular diren eta ardoa egiten duten upeltegiek zein mahastizain eta ardogileek, baldin eta interesa badute Arabako Foru Aldundiak estatuan eta hirugarren herrialdeetan Arabako Errioxa sustatzeko eta merkaturatzeko egiten dituen ekintzetan parte hartzeko.
- 1.2. Deialdi honek interes adierazpenetarako deia barne hartzen du, baina ez du inola ere ekarriko administrazio prozeduran parte hartzea, eta ez du inolako eskubiderik sortuko.

2.-Interes adierazpena aurkezteko epea, modua eta lekua.

- 2.1 Interesdunek dagokion interes adierazpena aurkeztu beharko dute, Foru Aginduaren II. eranskinetako inprimakiaren bidez, Arabako Foru Aldundiko Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuari zuzenduta.
- 2.2 Interes adierazpen hori Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean (<https://egoitza.araba.eus/es/-/registro-electronico-comun>) edo urriaren 1eko 39/2015 Legearen 2.1 artikuluan jasotako administrazio bakoitzarenean aurkeztu beharko da, aipatutako legearen 14.2 eta 16.4 artikuluetan ezarritakoari kalterik egin gabe.
- 2.3 Interes adierazpena aurkezteko epea zazpi egunekoa izango da, ebazpen hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun balioudunetik aurrera kontatuta.

3.- Interes adierazpenak aztertzea eta parte hartzaileen zerrenda eratzea

- 3.1 Norgehiagokako deialdia ez denez, bertan onartuko dira eskaera betetzeko interesa adierazten duten eta 1. apartatuan ezarritako irizpide orokorrak betetzen dituzten pertsona fisiko eta juridiko guztiak.
- 3.2 Eskaerak aztertu ondoren, Nekazaritza Sailak zerrenda horretan sartzea ukatuko die 1. artikuluan ezarritakoaren arabera desegokitzat jotzen dituenen, eta hori interesdunei jakinaraziko zaie.
- 3.3 Estatuan eta hirugarren herrialdeetan Arabako Errioxa sustatzeko eta merkaturatzeko ekintzetan parte hartuko dutenen zerrendan sartuta daudela jakinaraziko zaie eskatzaileei, eta edozein unetan eskatu ahal izango dute zerrenda horretan baja ematea.

Era berean, 1. apartatuan jasotako irizpideak betetzeari uzten dioten parte hartzaileei baja emango zaie ofizioz.



- 3.4 Zerrendan sartzeak eskubidea emango du Arabako Foru Aldundiaren informazioa jasotzeko estatuan eta hirugarren herrialdeetan Arabako Errioxa sustatzeko eta merkaturatzeko egitea aurreikusi diren ekintzei buruz, bai eta ekintza horietan parte hartzeko ere.
- 3.5 Parte hartzaileen zerrendan sartzen diren pertsonen parte hartzen duten jarduera horiek Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuak koordinatuko ditu.
- 3.6 Parte hartzaileen zerrendan sartzeak ez dakar Arabako Foru Aldundiak inolako ordainsaririk ordaintzea.
- 3.7 Eranskin honen 2.3. apartatuan ezarritakoa gorabehera, hasierako zerrenda egin ondoren, parte hartze handiagoa bermatze aldera, kide berriak sartu ahal izango dira hasierako zerrenda horretan, betiere 1. apartatuan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

4.- Datuen konfidentzialtasuna

- 4.1 Parte hartzaileen zerrendako kideek, deialdiaren xedearekin lotutako jarduerari buruz lortutako datuen titular direnek, datu horiek Arabako Foru Aldundiarekin partekatze konpromisoa hartzen dute.
- 4.2 Era berean, Arabako Foru Aldundiak konpromisoa hartzen du datu horien konfidentzialtasuna errespetatzeko. Aldundiak datuok erabili ahal izango ditu helburuak betetzeko, baina ezingo ditu inolaz ere partekatu beste erakunde batzuekin, ez eta argitaratu ere, baldin eta datu horiek lagatzen dituzten pertsonen horretarako berariazko baimena ematen ez badute.
- 4.3 Deialdi honen helburuak lortzeko, parte hartzaileek baimena ematen dute bertan parte hartu dutela jakitera emateko.